

ZAV

ZORROTZ MORROTZ

60. ZBKIA 2019ko AZAROA

ANA BERTA CAMPO

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO BATZARKIDEA

IKASTETXE PUBLIKOAK NAZIO BATUEN ERAKUNDEAN

Allianz 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

Bilbon euskaraz



▶ www.bilbaoeuskaraz.eus

B
Bilbao



...Imajinatzen duzu auzoa
merkataritzarik gabe?

**ESKAINTZARik ONENA
ZORROTZatik
IRTEN BARIK**

**Berton
kontsumitu**



Sader kanpora lehenbailehen!

Aurten Zorrotzako Auzo Elkartearen 50. urteurrena ospatu da eta horren harira urte osoan zehar hainbat ekintza ospatu dira. Berriro ere, Zorrotza auzo hobea bilatzeko lanean aritu diren pertsonen eskerrak eman nahi dizkiegu. Aldi berean, urte bizia izaten ari da elkartearentzat, herri-mugimenduarentzat eta taldeon koordinakundearentzat. Orain, uda eta auzoko jaiak igarota, aurrean daukagun ikasturtean hamaika konturi aurre egin behar diegu.

Udal hauteskundearen ostean, udal taldeekin eta alkatearekin bildu gara gure kexkak eta eskaerak aurkezteko. Kutsaduraren arazoari lehentasuna eman behar diogula eta Sader lehenbailehen auzotik kanpo egoteko kanpaina bat martxan jarri behar dugula uste du elkarteak.

Jakina, beste gai asko ditugu esku artean eta horiek konpontzeko lanean gaude. Adi egoteko eta ahal duzuen neurrian, Zorrotza auzo hobea bilatzeko parte hartzera animatzen zaituztegu. Horretan dihardugu. Eutsi goiari eta aurrera!



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarritz



Zorrotzako kultur aldezakaria
60. zenbakia. 2019ko azaroa

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behea

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

f facebook.com/ZorrotzMorrotz

t [@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

Koordinazioa: Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Ainara García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratxe Pérez
- Zuriñe Vila

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Saúl Kurto

Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldezakaria Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukaren erantzule bakarra



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-baztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46

Sader Zorrotzatik kanpora eraman dezaten “Aire garbia izateko eskubidea” kanpaina hasi du Auzo Elkarteak

Azaroaren 13an Azoka parketik atera eta Sader enpresa aurrean bukatu zuen manifestazioak agerian utzi du Zorrotzako hiritarrak gogaituak daudela SADER lantegiak isurtzen dituen kiratsez eta aire txarrez.



Aitor Marín

Jende andana bildu zuen manifestazioa “aire garbia izateko eskubidea aldarrikatuko duen mobilizazio kanpaina iraunkor baten hasiera baino ez da izan”, azaldu zuten Auzo Elkarte-ko bozeramaileek manifestazioaren hasieran.

SADERek 33 urte daramatza Zorrotzan. 1986tik bete ditu “Industrias Químicas Canarias”ek utzitako instalazioak eta azken hau 1948tik egon zen Zorrotzako aireak kutsatzen. Auzo Elkarte-ko kidea den Carlos Rodríguez gogoratzen duenez, “gaur egungo ingurugiro legediaren arabera, hura bezalako enpresa bat gure etxeetatik hain hurbil jartzea pentsaezina izango litzateke”. Rodríguezek ere aipatu du toki berean hondakinak deskontaminatzen eta suntsitzen dituen Sader enpresaz aparte, Profersa enpresak ere jarduten duela, ongari-tereko gaiak ekoizten dituen.

Gogora ekarri behar da auzoko herritarron kezka ez direla soilik Sader enpresagatik. Zorrotza inguruan beste enpresa kaltegarri batzuk baditugu: Sebería Bilbaina, 1958tik Zubiletan kokatuta dagoena (bertan 1923tik zegoen antzeko industria baten lekua bereganatu zuen); 1958an ere Lutxanara heldu zen Bilbaina de Alquitranes; eta Zabalgarbi

erraustegia, Kastrexanan kokatua 2004tik. 2013an, Kadagua azpiko arroa hamarkada luzez erruz eta franko kutsatu ostean, Kastrexanako Profusa itxi zen.

Zorrotzako Auzo Mugimendua, Auzo Elkar-teen eskutik, aspaldidanik etengabeko borroka aurrera eramaten ari da aire garbia eta kiratsik gabea lortzeko, eta asko izan dira Bilboko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkari-ekin izandako bilerak. Borroka instituzionalaren arloan inflexio-puntua 2010ean eta 2011n gertatu zen. Orduan 3 alditan jezarra-razi zituen Herri Mugimenduak erakunde pub-likoen eta industria isurtzaileen ordezkari-ak eskualdeko auzo elkarte-ekin ordezkari-ekin. Bat-zen iritiz lorpen oso handia izan ez bazen ere, handik gutxira Profusa itxi zuten eta Sa-derren tximiniari ke-iragazki bat ipini zioten. Gainera, kutsaduraren garrantzia auzoko jende, erakunde eta enpresetara heldu zen.

Oraingoan, eta aurreapausorik ikusi ez denez, gai honekiko “erakunde- jarrera axolagabea” salatzen eta auzotarrak kontzientziatzen jarrai-terko pauso bat gehiago emateko unea heldu da Herri Mugimenduaren ustez. “Ea ahalegi- nak ahalegin ingurugiro hobea eta aire garbia lortzen dugun laster auzoan”.

Hainbat auzokidek parte hartu zuten arratsaldean anbulategian pediatarik ez egotea salatzeko elkarretaratzean

Ainara García

Denbora luzea daramagu Zorrotzako bizilagunok Osasun Zentroaren egoera larria salatzen. Oraingoan gainera biztanleriaren talde garrantzitsu eta ahulenetarikoa bati tokatu zaio, umeei hain zuzen ere. Pediatra faltaren arazoa ez da berria, aspalditik ordezkariak falta baitira oportetan eta jaiegunetan, baina orain arratsaldeko pediatra bajaran egonda eta bere lekuan familia mediakua jarrita, egoera jasanezina bihurtu da. Egoera hau salatzeko, eta bizilagunon kexak jasota, elkarretaratze bat antolatu zuen Auzo Elkarteak urriaren 24an Osasun Zentroaren aurrean.

Euskal Herriko Lehen Mailako Pediatra Elkarrearen arabera, Euskadin 3000 pediatra plaza badaude ere, %15 baino gehiago umeekiko formazio espezifikorik ez duten familia medikuek betetzen dituzte. Gainera, pediatria

ikasketak bukatzean, mediku gehienek Ospitalizazioa aukeratzen dute Lehen Mailako Arretaren ordeez. Eta Osakidetza ez du konponbiderik ematen.

Zorrotzan, goizez dagoen pediatrik bere agenda propioa eta arratsaldean urgentziako kasu pila hartzen du. Gainera, bere lanaldia Zorrotza eta Alonsotegi artean banatuta dauka. Gutxi balitz, etxeetako abisuei erantzun behar dieneren, aparkatzea oso zail izaten du. Udalari aparkatzeko baimen berezia eskatu badio ere, uko egin diote, beste zentro batzuetan onartu arren. Horrez gain, asteburuetan Osasun Zentroko ordutegian ez dago pediatarik, eta Etengabeko Arreta Guneetan ere ez. Egoera honek ospitaleko urgentzietara joatera behartzen gaitu, hauek ere betetzen...

Konponduko da egoera hau?

Harrapari Athletic zaletuen taldeak bere hamargarren urteurrena ospatu du jaialdi batekin

Zorrotz Morrotz

Azaroaren 16an eta eguraldia lagun izan ez arren, Harrapari Athletic zaletuen taldeak bere hamargarren urteurrena ospatu zuen. Beste zaletu taldeetako hainbat kide bertaratu ziren eta oso jendetsua izan ziren egindako herri bazkaria, triki-kalejira eta elektrotzaranga batek lagundutako poteoa, besteak beste. Auzoko kirol taldeak omendu zituzten eta Iñigo Cabacasen gurasoei omenezko ekitaldi txiki bat egin zitzairen 10 de Fray Juan tabernaren aurrean. Jaialdia arratsalde-gau partean bukatu zen gaztetxean Distorsion, Josetxu Piperrak & the Riber Rock Band eta Hijos de tu Iglesia taldeen emanaldiarekin.





Zortzi denden salgaia erakusgai XIV. Merkataritzaren Desfilean

Zorrotz Morrotz

Joan den azaroaren 9an, eta urtero legez, Zorrotzako Laguntasuna Merkatarien Elkar-teak antolatutako Merkataritzaren Desfileaz gozatzeko aukera izan zuten kiroldegian bertaratutakoek. Zorrotzako zortzi saltokien materiala erakutsi zuten pasarelatik des-filatu zuten modeloek. Hamalaugarrenez ospatu den ekintza honek 500 pertsona inguru biltzea lortu zuen.

Aurten gainera, SK LIVE emanaldi soli-darioaz gozatu ahal izan zen. Bildutako dohaintza "La Cuadri del Hospi"ri emango diote antolatzaileek.

160 perretxiko mota baino gehiago Tricholomaren erakusketa mikologikoan



Iratze Pérez

Azaroaren 10ean Zorrotzako Tricholoma Mikologia Elkartek beste behin ere, perre-txiko erakusketa antolatu zuen Zorrotzako Azoka parkean. Hogeigarren edizioa izan da aurtengoa.

Goiz osoan zehar euritan egon bazen ere, aurreko bi egunetan hartu zituzten 160 per-retxiko mota baino gehiago ezagutzera eman zituzten. Gainera, gerturatu zirenei, txorizo eta perretxiko pintxoak ere eskaini zizkieten.

Mendira ateratzeaz aparte, astelehenero Au-zo-etxean biltzen dira Tricholoma elkarteko kideak eta perretxikoei buruzko aholkuak eta bigarren iritziak eskaintzen dizkiote ger-turatzen den orori.

Zazpi Landa etxaldea

Etxe talde hau hirurogei hamarkadan egin zan, kanpotik etorritako jende asko, basoan egindako "etxe prekarioak", edo bakoitzak egindako etheen osasun faltak gainditzeko, lehenago aberentzako lantxarrakinguruko baserritarrentzako eta Zorrotzgoitikoentzako.

Langilentzako etxeak izanda, garaiko diktadurako eraikinen adibide ona dekgu auzoan. Beheko partean etxe txikerrak, batzuk hogetamar metro karratu eskaz dekgela... alaba-seme askotako sendiek eta alda-tza baten eginak...

Eta hauen gainean, Espainako armadako polizia eta guardia zibilen etxeak, hobeagoak, handiagoak... auzune honi "babesa" ematen.

Ba, haren garaiko pentsatutako ideien kontra, auzotar asko beldurrak gainditzen eta beti borrokarako prest egonda, auzune honek bizia hartu eban, integratu zan auzoan eta, argazkian ikusten dan lez kaña ederra emon ebien, emoten dabe eta aurrerantzian jarraitzea esperoan gabiz.....

Beraien ezizen esagunak dira, katangeñoak, kañeritoak (kañeritoak, bere garaian, zakarra kontainerrak ziren eta asko gurutzatzen ziren garaiko greba eta borroketan) eta, hiruroge-tamar hamarkado horretan fama hartutako "makarrak", txupa baltza ta guztiz...



LEHEN



**Zorrotzako argazki zaharrak
dituzu? Zure argazkia
Zorrotz Morrotzen
agertzea nahi duzu??**

Bidaliguzu e-mail bat
zmorrotz@gmail.com
helbide elektronikora gaiaren
laukian "behin batean" jarritz.
Mila esker!



**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

GORA HERRIA!

★ *independentzia!*
SOZIALISMOA!



ASKABIDE
kultur elkartea
Zorrotza



“Oso jende maitagarria ezagutu dut hemen, laguntzeko prest azaldu direnak”



KAREN OMAÑA

Jatorria: Táchira (Venezuela).

Noiztik: 2012. urtetik.

Adina: 26 urte.

Venezuelan ezagutu zuen bere alaben aita izatekoa, hura ordurako Zorrotzan bizi zena. Berarekin gurera bizitzera etortzea erabaki zuen haurdun zegoelarik, familiaren bizi kalitatea hobetzeko asmoz. Faltan duen familia osoa Venezuelan izan arren (alabak salbu), oraindik ezin izan da hara itzuli, bere egoera erregularizatu gabe baitauka.

Igor Gutiérrez

Nola etorri zinen Zorrotzara bizitzera?

Venezuelan nengoela, nire alaben aita ezagutu nuen. Bera ere venezuelarra izanik, ordurako Zorrotzan bizi zen. Bikote ginela haurdun geratu nintzen eta erabaki nuen berarekin bizitzera joatea. Nire herrialdearen egoerak ere eragina izan zuen erabaki horretan. Azken finean, gure familiarentzat bizi kalitate hobea bilatzeko asmoa nuen.

Nola gogoratzen dituzu zure lehenengo egunak hemen?

Haurdun egonik, sentimenduak nahas-mahas eginda nituen, hortaz, are arrotzago egiten zitzaidan dena: garraioak, kaleko gi-

roa, janaria... Gero apurka-apurka moldatzen joan naiz eta orain oso gustura nago.

Zer da gehien sumatzen duzuna faltan?

Nire familia, dudarik gabe. Alabak salbu, nire familia osoa Venezuelan dago. Gero, nire lagunak eta hango giroa ere bai.

Zer da Zorrotzatik gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Gehien, oso leku lasaia eta segurua dela bizitzeko. Gainera, zerbitzu ugari ditu, medikua esaterako. Nahiz eta hemen ere gizarte-zerbitzuek akatsak dituzten (auzoko pediatraren kasua aipatu du), oro har nire herrialdean baino hobeto funtzionatzen dute. Eta gutxien, eguraldia (barre egiten du).



Lagunak egitea kostatu zitzaizun?

Hasieran bai, gero nire bikotekideaz banandu nintzen eta denbora batez atsekabe egon nintzen, egoera berrira moldatu arte. Esan daiteke alabak eskolara joaten hasi zirenean jende berria ezagutzen hasi nintzela eta lagunak egiten. Horrez gain, Margotu elkarteak ezagutu nuen eta horrek izugarri lagundu zidan bai gizarteratzen bai hemengo ohituretara egokitzen.

Zein da zuretzat hemengo jendearen ezaugarriak aipagarriena?

Egia da hasiera batean hotzak ematen dutela, gu hain beroak gara... Baina gero oso jende maitagarria ezagutu dut, laguntzeko prest azaldu dena.

“ Alabak eskolan hasi zirenean jende berria ezagutzen hasi nintzen. Horrez gain, Margotu elkarteak ezagutu nuen eta horrek izugarri lagundu zidan bai gizarteratzen bai hemengo ohituretara egokitzen ”

Inoiz itzuli zara Venezuelara?

Ez, joateko irrikan nagoen arren ezin izan dut oraindik, nire egoera erregularizatu gabe baitago etorri nintzenetik. Pentsa, alaba biak hemen jaioa ere! Gai horri buruz luze mintza ninteke...



Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Aroko onak, konbinatu gozoak, Futbolak, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao



**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO



Plater konbinatuak,
hamburgesak,
oilasko erreak...

FRAJ JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Gizarte eraldaketarako erreferente hautatuak izan dira Zorrotzako ikastetxe publikoak



Zorrotzako hiru ikastetxe publikoak gizarte eraldaketaren hezkuntza-erakunde erreferente gisa hautatuak izan dira zenbait proiektu berritzaile garatzen dituztelako. Hiru zentroetako ordezkariak Suitzan, Nazio Batuen Erakundearen funtzionamendua ikusi eta giza eskubideen heziketan trebatzeko aukera izan zuten.

Testua eta argazkiak: Zorrotzako ikastetxe publikoak


Euskadiko bederatzi hezkuntza-erakunde gizarte eraldaketaren erreferente gisa hautatuak izan dira, zenbait proiektu berritzaile garatzen dituztelako. Horietariko hiru Zorrotzako ikastetxe publikoak izan dira; Zazpilandako eskola, Zorrotza Fray Juan eta IES Zorrotza institutua, batik bat.

Hiru zentro hauetako zuzendariak diotenez, "Ekainean UNESCO Etxetik deitu ziguten aukeratuak izan ginela esateko. Benetan ilusio handiz jaso genuen berria eta Zorrotzako proiektu sozio-hezitzailean lanean jarraitzeko aukera bezala ikusi dugu, betiere, auzoko gizarte-eragile guztiekin batera: Margotu, Auzo Elkartea, Gure Lurra elkartea, AEK, etab. Funtsezkoak dira proiektuak aurrera eramateko".



Aukeratutako bederatzi zentroak Genevan, Suitzan, izan ziren. Bertan Nazio Batuen Erakundearen (NBE) funtzionamendua ikusi eta giza eskubideen heziketan trebatzeko aukera izan zuten.

Orain hautatutako ikastetxeetan bisitaldi fase berria hasten da. Era honetan, zentro berritzaile horietan garatzen ari diren proiektuak ezagutzera eman eta elkarrekin partekatzeko aukera izango dute.



**!Kasi
Mi Kasi!**

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



CEIP ZAZPIPLANDA-ZORROZGOTTI ILIHI

Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75

📧 sietecampas@gmail.com



CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ILIHI

Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21

📧 014159aa@hezkuntza.net



I.E.S.
ZORROTZA

San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo

☎ 94 439 33 34 / 688 861 374

☎ 94 439 97 41

📧 015078aa@hezkuntza.net

www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

ANA BERTA CAMPO: Bizkaiko Batzar Nagusietako batzarkidea

“ Kalera ateratzen garen bakoitzean politika egiten dugu ”



Zorrotzako Herri Mugimenduan ibilia da Ana Berta Campo. Izan ere, Zorrotzako AEKren bultzatzaileetarikoa bat da, eta Gau Eskolako irakaslea izan zen auzoko AEKren hastapenetan. 56 urteko emakume hau, Don Patuco dendaren jabea eta duela 14 urtetik hona Laguntasuna merkatarien elkarteko presidentea izateagatik ere ezaguna da gurean. Alderdi Sozialistak eskatuta, alderdian laguntzen hasi zen duela urte batzuk. Udalerako zerrendetan hainbat aldiz agertu ostean, maiatzean Bizkaiko batzarkide hautatua izan zen.

Noiz eta zergatik hasi zinen politikan? Alderdi sozialistan murgilduta egon zara betidanik?

Aspalditik. Garai gogorretan hasi nintzen. Laguntza eskatu zidaten alderditik eta laguntzaile gisa hasi nintzen. Udal hauteskundee-tako zerrendetan hainbat aldiz agertu naiz, lehenengo postuetan, baina orain arte, inoiz ez hautatua ateratzeko aurreikusita dauden postuetan.

Eta maiatzean Bizkaiko Batzar Nagusieta-rako hautagai izateko aukera heltzen zaizu, Bilboko barrutiko PSEren hirugarren pos-tuan hain zuzen ere. Aurreko emaitzak kon-tuan hartuta, litekeena hautatua izatea zen... Nola bizi izan zenuen aukera hori?

Normaltasun osoz. Zerrendako postu horre-tan, esan duzun bezala, litekeena hautatua izatea zen, beraz, aurreikusita nuen eta ez zen ezustekorik izan. Alderditik proposamena hel-du zitzaidan, baina aurretik aipatu dudanez, zerrendetan agertzen ohituta nengoen, eta berdin udal hauteskundeetarako edo Batzar Nagusietarako.

Ezaguna zara azkenengo urteetan auzoan Don Patuco dendako dendaria eta Lagunta-suna Merkatarien Elkarteko presidentea ere izateagatik. Uztartuko dituzu hauek eta ba-zarkide kargua?

Denda nire lana da eta Aldundian ez daukat liberaziorik, beraz jakina uztartuko ditudala. Eta Laguntasuna Merkatarien Elkarteko pre-sidentetza uzteko asmoarekin nabil aspaldi-tik, baina ez bateraezintasunagatik, baizik eta urte asko eman ditudalako jada. Hamalau urte gehiegi dira eta nire ustez kargua beste batek hartzeko unea heldua da, baina ez da erraza izaten ari beste bat agertzea prest...

Zein izango da zure jarduna Batzar Nagusie-tan? Zertaz arduratuko zara zure taldean?

Hiru batzordetako kidea naiz: Euskara eta Kul-tura, Garapen Ekonomikoa eta Hiritarrekiko Harremanak. Espero dut gauza pila egin ahal izatea batzorde hauetan, baina momentuz le-gintzaldia hasi berria da, eta horrelako bat-zordeak martxan jartzea prozesu motela iza-ten da... Aurrekontuak prestatu ostean, gauza zehatzagoak lantzen hasiko gara.



“Arlo ekonomikoan edo sozialean adibidez EAJk gure ustez dituen gabeziak orekatzeko balio dezake gure ekarpenak gobernuan”

Aldaketaren bat nabari duzu jendearekiko zerrendan agertu edota hautatua izan zare-netik?

Ez; gainera, lehen aipatu dudan bezala, nire kasuan zerrendetan agertua nintzen aurretik, beraz hau ez zen berria. Zerrendan agertu nintzen lehendabizikoan bai egon zen “talka” moduko zerbait pertsona gutxi batzuekin, bai-na oraingoan ez.

Oso denbora gutxi eman duzu momentuz Juntetxean, baina hala ere, nolakoa da beste diputatuekiko harremana? Zer da gehien ha-rritu zaituena?

Oso denbora gutxi eman dut baina harreman ona da oro har, eta ona izaten jarraitzea espe-ro dut. Gehien harritu nauena, nahiz eta erai-kina aurretik ezagutu, Juntetxea bera izan da. Plenoak bertan egitea beti, hango solemnita-tea, handitasuna...

“ Zorrotzarako eginbeharra gehiago landu behar da hemen bertan instituzioetan baino. Nik itxaropen handia daukat Zorrotzako mugimendu asoziatiboan, eta oso garrantzitsua da mugimendu hau indartsu egotea gauzak aldatzeko eta instituzioetan eragiteko ”



Hirugarren indarra da Alderdi Sozialista, Batzar Nagusietan. Nagusia den EAJrekin akordioa sinatu du zure alderdiak. Zer nola-ko eragina izango du alderdi sozialistak gobernuan?

Ideologiaren aldetik, arlo ekonomikoan edo sozialean adibidez gure ustez EAJk dituen gabeziak orekatzeko balio dezake gure ekarpenak gobernuan, nire ustez.

Hala ere, EAJren nagusitasuna nabaria da. Ez al diozue beldurra gobernuaren barruan zuen irudia desitxuratzeari?

Ez dut uste. Guztiz alderantziz. Alderdi politiko guztien helburua hiritarren bizitzak hobetzeko eragina izatea da, eta nire ustez gure presentzia gobernuan horretarako baliatuko dugu.

**Orain dela gutxi errepikatu dira espainiar hauteskundeak. Alderdi Sozialistak behe-
ra egin du... Beharrezkoa zen errepikapena zure ustez?**

Ez dut uste beharrezkoak zirenik, baina horrela gertatu da. Ezin izan ziren saihestu... Ba gutxienez, ongi etorria oraingoan atera den irtenbidea eta Unidas Podemosekin sinatutako aurreakordioa.

Eta oraingoan posiblea izango du Pedro Sánchezek Espainian gobernu osoa osatzea Unidas Podemosekin?

Posiblea, bada. Guztiz. Baina egia da ez dagoela bakarrik Unidas Podemos eta Alderdi Sozialistaren menpean... Posiblea izatea espero dut, eta kontrakoa zorigaitza izango litzatekeelakoan nago. Ez soilik gobernu osoa ez izateagatik. Hauteskundeak hirugarrenez errepikatzeak emaitza okerragoak ekarriko litzatekeela uste dut. Polarizatuagoa egongo litzateke eztabaida eta ultraeskumak are gorago egingo lukeelakoan nago.

Eta Zorrotzara bueltatuz, zer nolako egoera sumatzen duzu eta zelan konpondu daitezke auzoko dituen gabeziak?

Ba gure esparrutik, Bizkaiko Aldunditik egia esan, orain arte egin ez den edo aldaketa nabaria ekarriko lukeen gutxi egin daiteke. Lan asko egin ahal da eta onura handiak lor daitezke udalerritik txiki askorentzat, baina Zorrotzarako konkretuki... Ziur nago zerbait egin daitekeela, baina nire ustez Zorrotzarako egin beharra hemen bertan landu behar da. Gizarte eragileek batera eragin behar dute, eta azken bolada honetan tirabirak areagotu dira...

Nik itxaropen handia daukat Zorrotzako mugimendu asoziatiboan, eta oso garrantzitsua da mugimendu hau indartsu egotea gauzak aldatzeko eta erakundeengan eragiteko. Eta Zorrotzak arreta handia behar du erakundeengandik.

Zertan lagundu dezake Alderdi Sozialistak eta zehazki zuk zeuk Batzar Nagusietan Zorrotza hobetzeko? Merkataritzarako neurrien bat buruan al duzu?

Ba, nik parte hartzen ditudan batzordeetan, kultura beste leku batzuetara heltzen den heinean gurera ere hel dadin saiatu gaitezke, adibidez. Garapen Ekonomikoan, nire arloa den merkataritzarako adibidez, Zorrotzan ekonomia eta merkataritza sustatzeko ekintzak eta politikak garatu daitezke, atal horretan gabezia eta behar handia baitugu auzoan. Hori nik parte hartzen dutan batzordeetatik, beste batzuetan ere zerbait gehiago egin daitekeela uste dut, adibidez garraioa datorkit burura, baina momentuz hasiberriak gara legegintzaldian.

Politika instituzionalean jarraituko duzu legegintzaldi hau bukatu ostean?

Ideiarik ez. Momentuz hartu dudan konpromisoa datozen lau urteetarako da. Legegintzaldi hau bukatzean, ikusiko dugu. Alde batetik alderdiak momentu horretan izango dituen beharrak ikusi beharko dira, eta bestetik nire baldintza pertsonalak aztertuko nituzke, baina dena den, politika ez da nire ogibidea, eta ez dut ogibidea bihurtu nahi. Baina kontuan izan behar dugu, eta hau azpimarratu nahi dut: politika guztiok egiten dugu kalera ateratzen garen bakoitzean.



LABURREAN

Pertsonaia politiko edo historiko bat aukeratu behar duzu: Euskal Herrian?...

Ramón Rubial aukeratuko nuke.

Nazioartekoan? Pepe Múgica.

Telebista eta irratiko tertulia politikoak edo telefilmak?

Filmak oso gustuko ditut, baina baita eztabaida politikoak ere. Nahiz eta azken hauetan maila gero eta txikiagoa den eta gero eta alderdikoiaogoak diren...

Teleberria ala egunkaria?

Egunkaria.

Egunkariaren azalean irakurtzea gustatuko litzaizukeen albisteak?

"Gizarte justizia osoa lortu dugu".

Zaletasun bat?

Irakurtzea, asti handirik ez izan arren.

Gomendatuko zenukeen liburua?

Nire libururik kuttunenena Mario Benedettiren "La tregua" da.



Vía gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

DisenUP

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

*Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarnez)
Eguneko menua*

Azaroak 29 ostirala

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

18:00 Auzokan.

Antzerkia:

KABIA ANTZERKIA: Hiroshimako zuhaitza Sarrera doan.

20:00 Madness tabernatik.

Trikipoteoa.

21:30 Arrigorri jatetxean.

Bertso Afaria.

ONINTZA ENBEITA

eta NEREA IBARZABAL.

15 euro. Info gehiago eta izen-ematea:

aek euskaltegia:

944 414 920 edo 663 080 976.

(azaroaren 26a baino lehen)



Abenduak 17 asteartea

Ordua zehaztu gabe oraindik.

Elizan.

Erakusketa ekitaldia:

ARGAZKINETA. Bildutako materialaren erakusketa.



Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (urtarrila-otsaila) iragartzeko, **zmorrotz@gmail.com** helbidera idatzi urtarilaren 7a baino lehen.

Cachopo Santer



Osagaiak: 2 haragi-xerra, urdaiazpikoa, gazta, baratxuria, piperbeltz, irina, arrautza, ogi birrindua, olio eta gazta. Patatak eta piperrak garnizio.

Gatzez eta piperbeltzez ondu behar ditugu bi haragi-xerrak. Erdian, urdaiazpikoa eta gazta sartzen diegu. Hurrengo pausoa, irina, arrautza eta ogi birrindutik pasatzea izango da. Birrineztatu ondoren, 200 gradutan labekatu behar dugu gorritxu arte. Azkenik, patatak eta piperrekin garnizionatzen dugu.

Zailtasun maila: Ertaina.

Prezioa: 15,95 (2 pertsonarentzat)

SANTER TABERNA

Ordutegia: astelehenetik-ostegunera: 6:00 - 23:00

Ostiraletan: 6:00 - 1:00

Larunbat eta igandeetan: 9:00-1:00

Zorrotzabaso,13. Zazpilanda

Telefona: 944415416

Facebook: Santer Zorroza



Doinua:

Lurreranpean sar nindaiteke

Voxen emailta hauteskundeetan

dudarik gabe aparta

harropuztuta balkoi batetik

Espainiari deiadarka

Abaskal ez da lehenengoa

hemen jotzen txalaparta

Savater Diez Semper Alonso

aspaldi dabiltz(a) oldarka

erregistratu beharko genuke


euskal faxistaren marka

Asier Urkiza



Miñan.

Amets Arzallus Antia / Ibrahima Balde. Susa. 2019. 152 orrialde.




Gineako hiriburutik Nzerekorera mila eta hirurehun bat kilometro daude. Ibrahima han ibili zen hiru edo lau urtez, kamioi batean, gidari batek apendiz onartu zuelako. Egun batean amak deitu zuen arte: anaitxikia falta zen etxean. Eta haren bila abiatu zen. Basamortua gurutzatu; pasatzaile, polizia, bahitzaileekin topo egin; egarria, gosea, mina ezagutu. Afrikatik Europarako bidea. Mediterraneoan zeharkatzen dutenak deshumanizatzea ezinbestekoa da haien heriotzen, kanporatzeen, ilegalizatutako bizitzaren gaineko ezaxola zabaltzeko. Baina bizitza horietako bakoitza bakarra da eta, beraz, unibertsala. Eta kontatzeak hori azpimarratzen du. Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da nobela hau, hark ahoz eta Amets Arzallusek letraz idatzia. Berezia duelako zauria, eta berezia kontatzeko manera. Hitz egitean han balego bezala.



Sutan:

AB (Motmo) 2019



“Danak dauka A aurpegia eta B aurpegia. Bata txarra izanez eta bestea hobea. Edo bata ona izanez eta bestea txarragoa”.

Sutan Bilboko talde gazteak “AB” euren lehenengo lana aurkeztu du. 2014. urtean sortua, gaur egun 9 kidez osatutako proiektuak aurtengo udan Usurbilgo Higain estudioetara jo dute Haritz Harreguy teknikari eta ekoizle ezagunarekin batera lehenbiziko diskoa grabatzera. Eta hori gutxi balitz, McOnak eta Guda Dantza taldeen abeslarien laguntza izan dute. Nahiz eta talde gaztea izan, nabari da ska-rock estiloan murgiltzeko duten erraztasuna, non hainbat instrumenturen erabilerak (tartean dultzaina) euren proposamena aberasten duen.

Hitzei dagokienez, gai sozialak eta eguneroko bizitzan agertzen diren arazoak dituzte hizpide. Musika pisu gehiena duen honetan horrelako mezuak helaraztea garantzitsua da. Pilota gure aldean izanda, gurea den bozgorailuaz baliatu gaitezen!

Ibai Barrios

Santer
& BAR
SMOKES

Afariak ostirala
eta larunbatetan
Etzeko berezitasuna:
katxopoa.

Telefonoa: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAZPI LANDA

AUTO ESKOLA
KAIKU


Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA



Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Errealitatea eta ahultasuna

Laburbilduz, faxistak espainiar heroismoa aldarrikatzen datozkigun honetan, hobe genuke gure ahultasun kolektiboan babestu. Hau da, egin diezaigun aurre heroismo (faxistari) elkarren ahulguneak errespetatuz; elkarren ahulguneak zainduz.

Pantaila batean lau gizon. Euren esanak ahotan hartuta, jendeak diplomaziaz betetzen ditu ohiturazko elkarrizketak. Mundua plato batera mugatu liteke une batez. Edo bizialdi oso batez. Errealitatea egunero eraikitzen da gure begien aurrean. Guk eraikitzen dugula esatea, agian gehiegitxo. Baina ezin ukatu nork bere errealitatearen ikuspegia aukera dezakeela, norberak zimendua jartzen baitio mundua deritzogun porlan pilari. Eta oinarritze lan horrek, zer esanik ez, eragin zuzena izango du eraikitako mundu-ikuspegian.

Norberak erabakitzen du albisteak nolako galbahetik igarota nahi dituen, arina edo go-gorra izango den goizero kafeari lagunduko dion pozoia. Norberak bizitzeko hizkuntza, lagunak, sexua, kultura, maitasun mota. Hautaketa hau, hala ere, ez da inondik ere libre. Tartean badago aukeratzea galarazten digun trabarik. Inguruko zaratak aukera jakin batzuetara bideratzen gaitu, besteak baztertuz. Badaude batzuk hegemonikoak, enpresa handiek sustatzen dituztenak, merkatuari interesatzen zaizkionak. Hauek ez dute gehienetan hautu espliziturik eskatzen, hots, ezinbestean pasibotasunak dakarren aukera dugu berau. Aukeratzen ez dutenek aukeratzaren dutena. Kapitalismoaren hego-haize goxo baina kutsakorak eramaten uztea, alegia. Hizkuntza hegemonikoen sehaska ezian kulunkatzea.

Kontrakoa aukeratzea, beraz, korrontearen kontra joatea da. Trabak bata bestearen atzetik saihestea. Sagu izatea katuaren etxean. Paralinpikoa izanagatik atleta olinpikoekin lehiatzea. Heroikoa esango dute batzuek. Bada, aizue, nik ez dut heroia izan nahi. Heroiek gehienetan amaiera txarra dutelako. Gainera, ez daukat nik halako nortasunik. Horretarako grina eduki behar da, eta inoiz ez naiz izan lehenengo lerroan jartzen ziren horietakoa. Barka nazala Akilesek, baina betidanik izan naiz Ulises zalea. Laburbilduz, faxistak espainiar heroismoa aldarrikatzen datozkigun honetan, hobe genuke gure ahultasun kolektiboan babestu. Eta horixe izatea nork bere errealitatea eraikitzeko erpina, korrontearen kontra doan ahultasuna, kolektiboan indartu daitekeena. Hau da, egin diezaigun aurre heroismo (faxistari) elkarren ahulguneak errespetatuz, elkarren ahulguneak zainduz. Anari-ren kantauk zioen bezala... "eskerrak ahulak garen!".

Asier Urkiza

Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ

aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!



Tarifak eta informazioa: zmorrotz@gmail.com

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Azaroak 25, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, gertu daukagunez, genero indarkeriaren kontsiderazio anitzei ekingo diegu.

Genero indarkeria, gizonen emakumeengan (eta LGTBI bezalako beste pertsonengan) eragindako indarkeria da, gizartean zein bizitza pribatuan duten menpeko egoera dela eta. Helburua, emakumeen sexualitatea, gizarte rola eta gorputzak kontrolatzea da. Are gehiago, emakumeak antolaketa sozio-politikotik eta erabakiak hartzen diren esparruetatik generikoki kanpo uztea. Horregatik, herrialde eta populazio maila guztietan jasa-

ten da, maila ekonomikoa, soziala, hezkuntza maila eta talde etnikoa edozein dela ere.

Oraindik indarrean dagoen 2005.eko emakume eta gizonen arteko berdintasunerako Euskadiko legeak oso modu murriztuan ulertzen du genero indarkeria; emakumeei eragindako kalte fisikoa, sexuala eta psikologikoa edo hauek gauzatzeko mehatxuak baino ez ditu kontsideratzen. Hala ere, Emakundek genero indarkeria modu zabalago batean kontuan hartzen duen berdintasunerako lege berria ateratzekotan dagoela adierazi du.

Edukia ezagutzeko irrikitan gaude...

SALAKETA ARGAZKIA



Zorrotzgoiti kalean burdinezko txorkorik ez

Maiatzean jada aipatu genuen arren, Zorrotzgoiti kaleko zuhaitz batzuk txorkorik gabe daude oraindik. Maiatzeko alean zaltzen genuen bezala, txorkorik gabe zailagoa da zuhaitzen sustraia garbi mantentzea, eta zikinkeria lurtean pilatzen da askotan. Auzo Elkarteak askotan eskatu badu ere, agerian da eskariak ez duela momentuz erantzun egokirik jaso.

**Bar
basarri**

**PINTXO
ASKOTARIKOAK**

Zorrotza Kastrexana
errepidea 10
48013, Zorrotza



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

**Jai-Alai
kafetegia**



Abate estreta. 12
94 490 12 59

Eskerrik asko Zorrotza!

Udal Gobernutik EAJk lau urte hauetan egindako lana era ezinhobean baloratu duzue; beraz, Zorrotzako biztanlegoaren gehiengo zabal horri, mila esker!

2019 urtea bukatzeaz dago, eta denboraren igarotzeak eskaintzen duen ikuspegiaz baliaturik, balantzea egiteko une aproposa izan ohi da urte bukaera. Hiru hauteskunde prozesu ezberdin bizi izan ditugu urte luze eta nekagarri honetan. Ezaguna den bezala maiatzeko udal hauteskundeetan Euzko Alderdi Jeltzalea berriro garaile agertu zen Bilbon eta Zorrotzan, barrutiaren botuen %43 lortu genituelarik. Garaipen ukaezina, beraz gure lehendabiziko desioa Zorrotzako biztanlegoaren gehiengo zabal horri eskerrak ematea da. Udal Gobernutik EAJk lau urte hauetan egindako lana era ezin hobean baloratu duzue, beraz, mila esker Zorrotza!

Legegintzaldi honetako lorpenik aipagarriena FEVEko trenbide-pasagunearen arazoa behingoz bideratzearena izan da. Udalak, kementsu ekin dio gai honi, Aburto alkatearen obsesio pertsonala bihurtu delarik. Zehaztasunetan murgildu bari, badakigu erantzukizuna Madrilgo Gobernuarena dela, baina Udalak bere gain hartutako konpromiso eko-

nomikoaren ondorioz lan interinstituzionala biziki areagotu egin da eta lurperatzea inoiz baino hurbilago ikusten dugu.

Jakitun gara auzoak erronka ugari dituela, horietariko premiazkoenak honakoak direlarik: elkarbizitza, Punta Zorrotzako planaren garapena, FEVEko lurperaketa gauzatzea, Molinos Vascos-erako proiektu bat garatzea industria aztarna gisa, SADERen behin betiko traslazioa aurreratzea... etab. Auzokide planak ezarriko dituen proiektuak alde batera utzi gabe erronka horietan guztietan murgilduko gara Zorrotzako Uri Buru Batzarreko gizon zein emakumeak. Beste lau urte ditugu aurrean, lana ez da makala, baina astero biltzen jarraituko dugu EAJko udal taldearekin batera koordinakuntza lanetan Zorrotzak dituen erronka, arazo zein proiektu ezberdin horiek lantzeko. Hortaz, edozein auzotarrek Batzokiaren ateak zabal-zabalik ditu bere kezak plazaratzeko, ahal dugun neurrian, apaltasunez eta zuhurki Zorrotzaren alde lan egiteko.

Beraz, auzo eta euskal gizarte hobia lortzeko asmoz, ezberdinen arteko indarrak batu beharko ditugu gizarteari zuzendutako jarduera politikoa bidez eta euskal nazioaren eraikuntzaren zutabe diren gizarte kohesio eta parte hartzearen bitartez. Azken batean, nazio eta gizarte eraikuntza ditugulako gure konpromiso politikoa ardatz EAJn.

Zorrotzako Uri Buru Batzarra



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefona: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

Kimuak, Zorrotzako oasi naturala

Kimuak jolas liberako toki bat da, naturarekin kontaktuan egoteko Zorrotzan daukagun lekurik hurbilena. Espazio honetan umeak aire zabalean jolastu daitezke naturari protagonismoa emanez, eta euskara asialdian erabiltzeko leku aproposa da

Zorrotza, nahiz eta historikoki leku naturala izan (Zorrotzako penintsula baserriz beteta egon zen industria finkatu baino lehen), leku hauek galduz joan da pixkanaka-pixkanaka. Zorrotzako mapa ikusi ondoren, nabaritu genuen oraindik geratzen dela leku "natural" bat, Zorrotzako futbol taldearen antzinako zelaia, La Base deitutakoa.

Zelai honetan "KIMUAK" espazioa jaio da. KIMUAK jolas liberako toki bat da, naturarekin kontaktuan egoteko Zorrotzan daukagun lekurik hurbilena. Espazio honetan umeak aire zabalean jolastu daitezke naturari protagonismoa emanez. Zientzia, mugimendua eta jakinmina lantzeko lekurik aproposena.



Oraingoz talde bakarra dago KIMUAN, asteartero 17:30etik 19:30era, euria egiten badu ere han gaude jolasteko prest! Espazioa euskara asialdian erabiltzeko leku aproposa da: herraminten, landareen eta animalien izenak euskaraz ikasten ditugu, eta gauzen izenak dakizkigunean gehiago zaintzen eta errespetatzen ditugu.

Kimuak Zorrotzako oasia dela esaten dugu Bilboko hiriaren hazkundera natura baztertzen hari delako, eta gure ustez leku hauek beharrezkoak dira umeen garapenerako, hiriaren soinuek deskonektatu ahal izateko.

Espazio hauek naturalizatze bidean gaude, baina zein izango da Udalaren jarra honen aurrean? Zementuzko hiriak geldiarazteko jarrera hartu beharko genuke, natura gure oinarria baita. Zer uste duzu zuk?



Zure **2. LENTE**
PROGRESIBOAK
DOAN
Varilux barne.

* Sustapena indarrean armazoia ere erosita eta graduazio berdinarekin.

RPS: 213/18

ibarreraluxury
OPTICA



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea entrata, 5. atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNESS

Tel. 94 441 62 75



Lorena

Zuhaitz gehiagotan
argiak ipini eta kale
desberdinetan, benetan
gabonetako sentsazioa
eman dezan



Iker

Argi eta apaingarri
gehiago ipini dezaten
gustatuko litzaidake,
baina gero behar
bezala zaintzen ez
baditugu...

Gabonetako apaingarriak

Nahikoak?
Nola gustatuko litzazuke
Zorrotza ikustea
Gabonetarako?

Iratze Pérez



Patxi

Bilboko erdialdeko
argien jarraipen bat
ipini dezaten.
Hau da, zentroa eta
auzoetako argien kolore
eta gaia berdina
izan dadin



Lourdes

Urte osoan zehar
auzoko puntu beltzak
argitzen dituzten
farolak ipini ditzaten
nahiago nuke



Ainara

Umeentzako aktibitate
gehiago egotea
gustatuko litzaidake,
haiek baitira gabonak
ilusioz bizi
dituztenak



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC



Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86

Regalos
Omega

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com

cafetxinbo

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



berTso afaria

AZAROAK 29, OSTIRALA

Arrigorri jatetxea. 21:30ean

18:30ean. Auzokan. Antzerkia. KABIA TEATRO: Hiroshimako zuhaitza"

20:00etan trikipoteoa Madness tabernatik

Menua:

Urdaiazpiko kroketak,
iberikoak,
gula entsalada epela
eta otarrainxkak plantxan

15 €

2. platera (izena ematean aukeratzeko):

Entrekota plantxan,
kodilloa labean,
txipiroiak tintan,
makailua bizkaitar erara
edo hegaluzea jardinerara erara

Etxeko azkenburukoak, ogia,
ura eta tempranillo ardoa

Izena emateko* eta info +:

aeK euskaltegia

944 414 920 / 663 080 976

(Azaroaren 26a baino lehen)

**Izena ematean ordaindu beharko da,
eskuan edo transferentzia bidez*

Antolatzailea:

Laguntzaileak:

Babeslea:

Onintza Enbeita



Nerea Ibarzabal



ZEURE
B
PLANA
BASKE
PENSIO
NES

BANAKAKO BGAEa

Kutxabank SA
Bazkide
sustatzailerak.
Kutxabank
Gestión IKESK
SAU Ondare
Kudeatzailea.

%0ko MAILEGUA BASKEPENSIONESEN AURREZTEKO

kutxabank

%0ko MAILEGUA

Irekitze- eta

ezeztatze-komisioa: %0.

Finantzatu beharreko
gutxieneko diru-kopurua:

2.400 €.

Adibidea: 3.000 euroko
mailegua, 12 hilabeterako
eta hileroko 250 euroko
kuota. Irekitze- eta
ezeztatze-komisioa %0 da;
UTB %0a da eta ITN ere %0.
Zordundutako zenbateko

osoa: 3.000 €.

Baskepensiones
Banakako BGAEren
plan hauetara

egindako ekarpenetarako:

Baskepensiones 15,

Baskepensiones 30,

Baskepensiones 60 eta

Baskepensiones Burtsa Globala.

Kanpainaren azken eguna:

2019/12/31.

